

2. MERKATU SEGMENTAZIOA

Proiektu proposamen hau 16 urtetik gorako Barakaldoko pertsonentzat dago pentsatuta. Kirola egiten duten jendea kirola egiten jarraitzeko eta motibatzea kirola ez uztea eta ez duenak kirola egiten motibatzea kirola egiten hastea eta aldi berean denda txikiak bultzatzeko. Europapress-en arabaera jarduera fisikoa uzteko tasa handiena 16 eta 18 urte bitartean gertatzen da, eta baita ere adin horietan ere independenteagoa izaten hasten zara eta herriko komertzioan kontsumitzen hasten dira bere kabuz. Aplikazioa erabiltzeko NANaren datuak jarri beharko dira, bonoak aukerakoak izango dira baina adingabeak ezingo dituzte ilegalak edo adin nagusientzat bideratutako gauzak eskuratu.

Bi helburu nagusi dituzten erabiltzaileei zuzenduko diegu:

- Kirola egiten dutenak: kirola egiteko motibazioa mantendu nahi dutenak.
- Kirola ez egiten dutenak: kirola egiteko motibazioa behar dutenak, deskontuak lortuz gero gehiago motibatuko direlarik.

Bezzeroen beharrak eta motibazioak:

- Kirola egitea: kirola egiteak osasuna eta egonkortasuna hobetzen ditu, eta horregatik aplikazioak motibazio aktiboak eskainiko ditu.
- Deskontuak eta eskubide bereziak: bezzeroek parte hartzeko eta lehiaketa orekatuetan sartzeko aukera izango dute, denda txikiak sustatuz eta sustapenak lortuz.

Adingabeak: Aplikazioak NANaren datuak erabiliko ditu adina egiaztatzeko, eta horren bidez ziurtatuko da adingabeek ezin dutela adin nagusientzako eskaintzak edo produktuak eskuratu. Horrela, erabiltzaile bakoitzaren adina modu seguru eta automatizatuan kontrolatuko da, legeari jarraituz.